



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 1999ko urriaren 15ean

19 ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

—Foru Lege Proposamena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa. Helburu du Nafarroako osasun sistema publikoaren babesean gera daitezela Nafarroan dauden etorkin guztiak, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (3.or.).

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren neurriak har ditzan natur zientziei buruzko museo bat sortzeko. «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (5.or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Kontratuei buruzko Foru Legea aldatzeko proiektu bat aurkez dezan. «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (6.or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Udal-funtzionarioek Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean sartzeko behar den hitzarmena burutu dezan. «Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (7.or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da garraioari buruzko eskualde-plan bat egin dezan. «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (8.or.).

F SAILA:

Galderak:

—Aurreko azaroaren 1ean, N-121 errepidea eten eta horren ondorioz A-15 autopistako bidesarigunean izandako butxadurari buruzko galdera. Félix María Taberna Monzón foru parlamentario jaunak egin (9.or.).

—Nafarroako Energi Planaren emaitzei buruzko galdera. José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak egin (10.or.).

—Tuterako odol-emateen jaitzierari buruzko galdera. María Isabel Arboniés Bermejo foru parlamentario andreak egin (10.or.).

- Bi urteko haurren eskolatzeari buruzko galdera. Juan Antonio Andi3n Gast3n foru parlamentario jaunak egina (11.or.).
- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen eskolatzeari buruzko galdera. Juan Antonio Andi3n Gast3n foru parlamentario jaunak egina (12.or.).
- DBHko aniztasunaren trataerari buruzko galdera. Juan Antonio Andi3n Gast3n foru parlamentario jaunak egina (13.or.).
- ISN enpresaren hondakin solidoak berriz aztertzea eskatu dela-eta, azterketa horri buruzko galdera. Juan Antonio Andi3n Gast3n foru parlamentario jaunak egina (14.or.).

G SAILA:**Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:**

- 1999ko urrian Biltzarrean gertatu alta eta baja (15.or.).
- Jorge Agust3n Mori Igoa jauna «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldean sartzea (15.or.).

I SAILA:**Parlamentuko Jarduera:**

- 1999ko urrian egindako bilerak (16.or.).
- 1999ko urrian Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda (18.or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege Proposamena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa. Helburu du Nafarroako osasun sistema publikoaren babesean gera daitezela Nafarroan dauden etorkin guztiak

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 8an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak hurrengo foru lege proposamena aurkeztu du: Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa; helburu du Nafarroako osasun sistema publikoaren babesean gera daitezela Nafarroan dauden etorkin guztiak.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaileen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkarian argitara dadin agintzea. Helburu du Nafarroako osasun sistema publikoaren babesean gera daitezela Nafarroan dauden etorkin guztiak.

Bigarrena. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 1999ko azaroaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege Proposamena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa. Helburu du Nafarroako osasun sistema publikoaren babesean gera daitezela Nafarroan dauden etorkin guztiak

ZIOEN AZALPENA

Azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeak osasun laguntzako jarduketak arautzen ditu, Foru Komunitatean bizi diren herritar guztien osasuna babesteko eskubidea benetakoa izan dadin. 3. artikulua dio Foru Komunitateko lurraldearen barrenean osasun laguntza publikoa Nafarroako edozein udaletan bizi direnengana zabalduko dela.

Otsailaren 21eko 71/1991 Foru Dekretuak Foru Komunitateko esparruan osasun-laguntza publikoa ororenganatu du, osasun publikoaren babesik ez daukatenak edo, edozein titulu juridikoren bidez, horretan sartzeko aukerarik ez dutenak ere har ditzan.

Ororentzako osasun laguntza ez dago bermaturik gure komunitatean. Nafarroan 8.000ren bat atzerritar bizi dira, eta, giza-multzo horren baitan, legez kanpoko 2.000 etorkin daude, gutxi gorabehera. Azken hauei XX. mendearen bukaeran ez zaie oraindik onartu oinarrizko giza-eskubideetako bat: osasuna babesteko eskubidea. Konstituzioko

43. artikuluan agertzen da eskubide hori, eta onartu egiten zaie norberaren nahiz besteren kontrako lan-kontratua daukaten etorkinei eta adingabekoei.

Nafarroako Gobernuaren 1997ko ekainaren 23ko erabaki baten ondorioz eskaintzen zaie osasun laguntza publikoa Foru Komunitatean dauden legez kanpoko atzerritarrei, baina ezohiko zerbitzu gisara eta gobernuz kanpoko erakunde batek eskaturik, patologiaren larrialdia hil ala bizikoa denean edo larrialdia erdi-mailakoa denean. Osasun zerbitzu batera beren kontura joanez gero, paziente pribatu gisara hartzen dituzte. Osasun laguntzaren faktura 7.000 pezetakoa da oinarritzko osasun laguntzako zentroetako medikuaren kontsultagatik, eta 15.000 pezetakoa, larrialdiko zerbitzuetan laguntza jasotzeagatik. Kostu horien barruan ez daude proba osagarriak, hala nola, erradiografiak, analisiak, etab.

Osasun laguntza publikoagatik kobratzeak ahulezia-egoera dakarkio giza-talde honi, guztientzako den osasun-sistema publikoak ez baitizkie eskubide eta betebeharrak zehatzak onartzen, eta sartzeko oztopoak ezartzen baitizkie. Giza-justiziaren oinarritzko printzipioen aurkakoa da egoera hori, eta babesik eza dakar. Horren ondorioz, osasun arloko profesionalek askotariko jarrerak izan dituzte, egoera honetan ez baitakite zer egin.

Egoera baztertzailerik honetan, etorkin taldeak ezin die aurre egin zenbaterako horiei, eta, hala, bide gogaikarri eta desatsegin bat egin behar dute (gizarte-langileengana eta gobernuz kanpoko erakundeetara jo), txosten sozio-ekonomikoen bidez frogatzearen dirusarrera urriak dituztela medikufakturak ordaindu ahal izateko. Gainerakoan, beste bide alternatibo bat baizik ez dute: onegintzako osasun zerbitzuetara jo dezakete; gobernuz kanpoko erakundeen elkartasunaren mendekoak dira horiek; Cáritasek, esaterako, 1.265 kontsulta egin ditu azken 12 hilabeteotan.

Giza-talde honen bazterketak eragin garrantzitsua du bere osasunaren babesean, bereziki patologia kronikoen kasuan; osasun publikoarentzako arrisku potentzialak dakartza, ez baititu kontuan hartzen gai oso garrantzitsuak, hala nola, gaixotasunei aurrea hartzea eta guztientzako osasun

heziketa iraunkorra. Egoera hau ez dator bat gure osasun-sistema aurreratuenetako bat eta paradigma bat delako ustearekin, eta kalte egiten dio Osasunerako Mundu Erakundearen helburuekiko hartutako konpromisoari; hots, gure komunitatean ororentzat izan dadila, benetan, osasun-laguntza, XXI. mendea hastear dagoen honetan.

Beraz, honek guztiak erakusten du komenigarri dela gizatalde hori, gure Komunitatean osasun laguntza publikotik kanpo dagoen talde bakarra, Osasunari buruzko 10/1990 Legean sartzea; halatan, burutu egiten da osasun laguntza Foru Komunitatean bizi diren herritar guztiengana zabaltzeko prozesua, haien legezko egoera edo administrazio egoera edozein dela ere.

Lehen artikulua. Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legean, Aurretituluko 3. artikuluko 1. paragrafoaren bukaeran “ haien legezko egoera edo administrazio egoera edozein dela ere” gehitzea. Beraz, 3.1 artikulua honela geratuko da:

“3. artikulua. 1. Foru Komunitateko lurraldearen barrenean osasun laguntza publikoa Nafarroako edozein udaletan bizi direnengana zabalduko da, haien legezko egoera edo administrazio egoera edozein dela ere.”

Bigarren artikulua. Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legean, Aurretituluko 3. artikuluari beste paragrafo bat gehituko zaio:

“3. artikulua. 5. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak banan banako osasun-txartelak banatuko ditu, eskatzaileek galdaturik edo, bestela, Nafarroan talde honen aldeko lana egiten duten gizarte-erakundeek egindako eskaeren bidez. Helburua da Foru Komunitatean bizi diren atzerritar guztiek izan dezatela benetan osasun laguntza izateko eskubidea.”

Xedapen gehigarria. Hiru hilabete epean, osasun laguntzari buruz indarrean dagoen legeria berrikusiko da, prozedura zein baldintzak egokitu eta etorkin guztiei harrera egin dakien Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan, haien legezko egoera edo administrazio egoera edozein dela ere.

E Saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren neurriak har ditzan natur zientziei buruzko museo bat sortzeko

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

«Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren neurriak har ditzan natur zientziei buruzko museo bat sortzeko”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentarioek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1999ko azaroaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedaturikoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran tramita dadin.

Berriro ere egunkarietan agertu da historia naturaleko museo bat ezartzeko dagoen beharra, Komunitateko hiritarren zerbitzuko museo bat. Badago behar beste gizarte-arrazoi eta arrazoi zientifiko. Izan ere, halako museo bat ez egotea defizit kulturala da, eta horri aurre egin behar zaio; gainera, kontuan izan behar da ez duela eskatzen gastu izugarririk eta gizarte-errentabilitatea ziurtatuta dagoela.

Nafarroako Demokraten Elkarguneak aurreko legegintzaldian ere agertu zuen Natur Zientzietarako instalazio bat sortu beharra dagoela; legegintzaldi honetan, berriz ere agertzen du, uste baitu gero eta beharrezkoago dela.

Hori guztia dela-eta, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran aurkezten da ondorengo erabaki proposamena:

Nafarroako Gobernua premiatzen da Natur Zientzietako museo bat sortu eta funtzionatzen hasteko beharrezko diren erabakiak har ditzan.

Iruñean, 1999ko urriaren 29an

Bozeramailea: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Kontratuei buruzko Foru Legea aldatzeko proiektu bat aurkez dezan

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

«Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Kontratuei buruzko Foru Legea aldatzeko proiektu bat aurkez dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentarioek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1999ko azaroaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

"Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedaturikoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran tramita dadin.

Orain dela gutxi onetsi dute Kongresuan lege bat, bizitzeko diren eraikinen eraikuntza-baldintzeekin lotutako aseguru bat ezarri beharra xedatzen

duena, oro har. Kontsumitzaileen elkarteek eskatzen zuten hori.

Agian, kontratuei buruzko legedian ezarrita dagoenari jarraiki, egokia litzateke administrazioen kontura egindako obren bermeak berrikustea.

Argi dago obra publikoaren kontzeptuaren baitan izaera eta helburu oso desberdinak dituzten jarduketak sartzen direla: hasi eraikin tradizional baten eraikuntzarekin eta bukatu komunikazio-sistema sofistikatu baten instalazioarekin.

Baina, beti ere, komenigarri da hiritar guztiek ordaindutako obrak onak eta iraunkorrak izanen direla bermatzeko irizpideak finkatzea, eta beharrezkoa da egungo egoera gainditzea, kontratuei buruzko legedian berme eta estaldura egokiak sartuz.

Hori guztia dela-eta, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran aurkezten da ondorengo erabaki proposamena:

Nafarroako Gobernua premiatzen da, hiru hilabeteko epean Kontratuei buruzko Foru Legea aldatzeko lege proiektu bat egin dezan. Lege horrek xedatuko du kontratista adjudikazio-hartzaileek obra publikoen aseguru bat sinatu behar duela, sor litezkeen egoera guztiei egokitutako aseguru bat.

Iruñean, 1999ko urriaren 26an

Bozeramailea: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Udal-funtzionarioek Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean sartzeko behar den hitzarmena burutu dezan

*«EUSKO ALKARTASUNA/EUSKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO»
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

«Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Udal-funtzionarioek Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean sartzeko behar den hitzarmena burutu dezan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentarioek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1999ko azaroaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

“Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco” Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, hurrengo mozioa aurkeztu du eztabaida eta bozka dadin.

Kontuen Ganbarak, Nafarroako toki administrazioari buruz emaniko txosten eta gomendio guztietan, beti aipatzen du beharrezkoa dela udal montepioen egoera behin betikoz konpontzea.

Nafarroako toki entitateak aspaldidanik eskatzen ari dira montepioak Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean sartzera, eta hori oraindik ez da behar bezala konpondu.

1993 urtean, Estatuko beste toki administrazio guztietako funtzionarioak Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean sartu ziren.

Estatuaren aurtengo Aurrekontu Legeak baimena ematen dio Estatuari urteko lehenengo sei hilekoan negoziatzeko zer baldintzatan sartu Nafarroako toki administrazioako funtzionarioak; Gobernua, epe horretan, ez da gauza izan arazo larri hori modu egokian konpontzeko.

Erregimen orokorrean sartzeko, baldintza oso onak izan zituzten erregimen orokorreko funtzionarioek, hau da, haien interesen oso aldekoak. Beraz, hitzarmenak haren antzekoa beharko du eta negoziazioak ere ez du oso zaila gertatu beharko, kontuan izan behar baita Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak harremanak izan dituela Gizarte Segurantzako Zuzendaritza Nagusiarekin, modu ofizialean ez bada ere.

Horiek horrela, eta kontuan izanik zer arreta gutxi eskaini dion Gobernu honek, gure taldeak honako mozio hau aurkeztu du.

1.-Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epearen barranean Gizarte Segurantzarekin negoziazioa burutu dezan, eta horrela udal funtzionarioak Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean sar daitezela benetan.

2.- Elkarrizketetan jarraitu beharreko eredia izan dadila 1993 urtean MUNPAL eta Gizarte Segurantzak sinatutakoa, gutxienez.

Iruñean, 1999ko azaroaren 2an

Foru parlamentarioa: José María Aierdi Fernández de Barrena

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da garraioari buruzko eskualde-plan bat egin dezan

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

«Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da garraioari buruzko eskualde-plan bat egin dezan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentarioek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1999ko azaroaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Juan José Lizarbe Baztánek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldearen bozeramailea, Parlamentuko Erregelamenduko 192. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean mozio hau aurkeztu du, Nafarroako Parla-

mentuko osoko bilkuran eztabaida dadin. Mozio honen bidez, hauxe eskatzen da: Nafarroako eskualde guztietan jar dadila eskualde-garraioa.

Azpiegiturek berdintasuna lortzen laguntzen dute eta baita eskualdeak garatzen laguntzen ere: ez da dudarik. Hala ere, nabarmena da Nafarroaren bilakaera sozioekonomikoaren ondorioz, produktzioa eta zerbitzuak nahiko bilduta daudela.

Gure komunitatearen oreka egokiak zerikusia du landaguneen garapenarekin, eta beharrezkoa da jendeak jarduera herri horietan izaten jarraitzea, edo, gutxienez, bizitokia.

Geografian barna mugitze horren ondorioz, beharrezkoa da garraio-bideak nolabait ere razionalizatzea, eta, guk betiere oinarri hartuko dugu garraio kolektibo intermodala.

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epearen barrenean egin dezan Eskualdeko Garraio Plan Intermodal bat Nafarroako eskualde bakoitzerako.

Iruñean, 1999ko azaroaren 4an

Bozeramailea: Juan José Lizarbe Baztán

F Saila:
GALDERAK

Aurreko azaroaren 1ean, N-121 errepidea eten eta horren ondorioz A-15 autopistako bidesarigunean izandako butxadurari buruzko galdera*FELIX MARIA TABERNA MONZON FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 8an egindako bilkuran, Félix María Taberna Monzón foru parlamentario jaunak aurreko azaroaren 1ean, N-121 errepidea eten eta horren ondorioz A-15 autopistako bidesarigunean izandako butxadurari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko azaroaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Aurreko astelehenean, azaroaren 1ean, butxada handi bat izan zen –auto-ilara luzeak– A-

15ean, N-121 errepidea eten eta horren ondorioz trafikoa asko handitu zelako. Jakina denez, bidesaria ordaindu behar da, eta horrek ekarri zuen butxada hau, ilara 10 kilometro baino luzeagoak. Nafarroako Gobernuak Barne Departamentuko txosten batzuek aholkatzen dute hau bezalako larrialdietan bidesaria kentzea, trafikoa azkarrago ibil dadin.

Guzti horregatik, jakin nahi dugu:

Zergatik ez zuen Nafarroako Gobernuak A-15 autobideko bidesaria kendu, N-121 itxita zegoenean? Foruzaingoak hori egiteko aholkatu zuen, eta, beraz, zer oztopo izan ziren neurri hori ez hartzeko? Antzeko egoerak edo eguraldi txarren ondoriozkoak gertatzen direnean, zer irizpide izan eta zer jarduketa eginen dira?

Iruñean, 1999ko azaroaren 2an

Foru parlamentarioa: Félix María Taberna Monzón

Nafarroako Energi Planaren emaitzei buruzko galdera

JOSE MARIA AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 8an egindako bilkuran, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak Nafarroako Energi Planaren emaitzei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko azaroaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

José María Aierdi Fernández de Barrenak, "Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Energi Planak, 2000 urtea bitarte, beste jarduketa batzuen artean, energia aurreztearen aldeko politika indartsua aipatzen zuen. Eredu izan zitezten, Administrazio Publikoetako eraikin eta erakundeetan hasi behar zen aplikatzen; horrekin batera zabaltzeko eta sentsibilizatzeko kanpaina indartsu eta jarraituak egin behar ziren, baita berariazko jarduketa sektorialak ere.

GALDERA

1. Zer emaitza ari dira lortzen? Zein izan da emaitza departamentu bakoitzean? Azken urteetako datu orokorrak eta alderaketak.

2. Zabaltzeko eta sentsibilizatzeko zer kanpaina egin dira sektoreetan?

3. Hurrengo urteetarako eta, bereziki, 2000 urterako, zein dira jarduketa-planak gai honetan?

Iruñean, 1999ko azaroaren 2an

Foru parlamentarioa: José María Aierdi Fernández de Barrena

Tuterako odol-emateen jaitsierari buruzko galdera

MARIA ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARIO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 8an egindako bilkuran, María Isabel Arboniés Bermejo foru parlamentario andreak Tuterako odol-emateen jaitsierari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko azaroaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

María Isabel Arboniés Bermejok, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroan aspaldi hasi ginen odola ematen: elkartasun-tradizioa luzea da. Tuteran, 1998 urte-

an, 1.200 odol-emate inguru izan ziren, betiko lekuan (hots, Miguel Eza kalean, erdialdean).

Reina Sofía Ospitalerako aldaketa egin zenez, odol emaile asko kexatu da: urruntasunak mugatu egiten du beste gaixo batzuekin solidario izateko duten disponibilitatea. Horren ondorioz Tuterako barrutian asko jaitsi da odol-emateen kopurua.

Hori guztia dela-eta, zera jakin nahi dugu:

1. Egia al da, odol-ateratzeak Reina Sofía Ospitalean egiten direnetik, odol-emateen kopurua % 40 inguru jaitsi dela?

2. 1999 urtean, zenbat odol-emate izan dira Tuterako Osasun Barrutian?

3. Beste aukera batzuetan pentsatu al da? Esaterako, oinarrizko osasun laguntzako zentroak baliatzea emaileen odol-ateratzeak egiteko.

Iruñean, 1999ko azaroaren 3an

Foru parlamentarioa: María Isabel Arboniés Bermejo

Bi urteko haurren eskolatzeari buruzko galdera

JUAN ANTONIO ANDION GASTON FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 8an egindako bilkuran, Juan Antonio Andión Gastón foru parlamentario jaunak bi urteko haurren eskolatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko azaroaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Juan Antonio Andión Gastónek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako Foru Parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du, bi urteko haurren eskolatzeari buruz, idatziz erantzun diezaioten:

Haur Hezkuntzako lehen zikloa LOGSEk ezarri eta arautu gabe dago. Hala ere, aurtengo ikastaroan, "bi urteko gelak" ireki dira zenbait ikastetean; behar bada, ez dute baimenik izanen, baina, gutxienez, utzi egin zaie.

Eskolatzeko horrek eragina izan dezake eskolatzeko horren arautzean. Hori dela eta, hona hemen Nafarroako Gobernuari eginiko hurrengo galdera hauek, idatziz erantzun ditzan.

– Zein ikastetxeek (publikoak nahiz pribatuak) dituzte bi urteko umeak eskolatuta?

– Zenbat haur dago ikastetxe bakoitzean?

– Zer baldintzatan daude eskolatuta haur horiek?: zenbat gela daude ikastetxe bakoitzean?, zer ordutegi dute gela horiek?, zer lanbide-prestakuntza dute ikasle horiekin egoten diren langileek?, hezitzaile eta ikasleen arteko zer ratio dago ikastetxe bakoitzean?, ba al da ikastetxeetan ikasle hauei buruzko berariazko proiektu pedagogikorik?

– Ba al du Hezkuntza Zuzendaritza Orokorrek ikasle horien hezkuntzaren bilakaera aztertzeko asmorik?

Iruñean, 1999ko azaroaren 3an

Foru parlamentario: Juan Antonio Andion Gastón

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen eskolatzeari buruzko galdera

JUAN ANTONIO ANDION GASTON FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 8an egindako bilkuran, Juan Antonio Andi6n Gast6n foru parlamentario jaunak Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen eskolatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Jos6 Luis Castej6n Garru6s

GALDERAREN EDUKIA

Juan Antonio Andi6n Gast6nek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako Foru Paralamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du, hezkuntza-premia berezia duten ikasleak eskolatzeari buruz, idatziz erantzun diezaioten:

LOPEGCEk (Ikastetxeen parte hartze-ebalua-zio eta gobernuari buruzko Lege Organikoa) xedatzen duenez, hezkuntza-administrazioek bermatu egingen dute hezkuntza-premia berezia duten ikasleen eskolatzeari buruzko publiko sustengatutako ikastetxeetan; bermatu egingen du, halaber, ikasleak modu egokian banatuta egoten jarraituko dutela, betiere hezkuntza administrazio eskudunak ezarritako gehiengoak gainditu gabe, eta, orobat, dagokion eskualdeko ikastetxeetan ikasle horien proportzio berdintsua errespetatuko egingen dela.

Horri dagokionez, hurrengoak dira hezkuntza-premia bereziko ikasle: urritasun fisiko, psikiko eta zentzumenezkoa izateagatik edota egoera sozial eta kultural behartsuan egoteagatik, berariazko laguntza behar dutenak eskolatzeari buruz jakin batean edo eskolatzeari buruz guztian.

Bestalde, 1999ko ekitaldiko Nafarroako Aurrekontu Orokorrak xedatzen duenez (21/1998 Foru Legea), Haur Hezkuntzako eta derrigorrezko hezkuntzako itunpeko ikastetxeek, hezkuntza-premia bereziko ikasleak hartzen dituztenean, diru- eta giza-baliabideak (laguntzako irakasleak) izanzen dituzte ikasle horiei laguntza emateko.

Horiek horrela, hona hemen Nafarroako Gobernuari eginiko hurrengo galdera hauek, idatziz erantzun ditzan.

– Zenbat hezkuntza-premia bereziko ikasle (zer urritasun dituzten adierazi, edo zer gutxiengo etniko eta kulturalakoak diren) daude eskolatu-tan ikastetxeetan (publiko nahiz itunpeko pribatuetan)?

– Zer laguntzako irakasle dituzte ikastetxe bakoitzean?

– Zer hezkuntza-laguntza klase ematen zaie irakasle horiei?

– Zer diru-baliabide eman zaio ikastetxe bakoitzari ikasle horiek direla-eta?, zer irizpide erabili dira? Zer laguntza eman zen aurreko ikasturtean?, irizpide berak jarraitu al ziren?

Iruñean, 1999ko azaroaren 3an

Foru parlamentario: Juan Antonio Andion Gast6n

DBHko aniztasunaren trataerari buruzko galdera

JUAN ANTONIO ANDION GASTON FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 8an egindako bilkuran, Juan Antonio Andión Gastón foru parlamentario jaunak DBHko aniztasunaren trataerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko azaroaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Juan Antonio Andión Gastónek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du, DBHko aniztasunaren trataerari buruz, idatziz erantzun diezaioten:

Egungo hezkuntza sistemak duen ardatz nagusienetako bat da aniztasunari arreta eskaintzea.

DBHko ikasleek zaletasun, motibazio eta gaitasun anitzak dituzte; horiei arreta eskaintzeko, ikastetxeetan, hainbat neurri abiarazi dira curricu-

lumari dagokionez eta antolatzeari dagokionez, eta hezkuntza administrazioak baimendu egin ditu.

Aztertu egin behar da hartutako neurriak ikasleei hezkuntza-erantzun egokia emateko balio izan duten.

Horiek horrela, hona hemen Nafarroako Gobernuari eginiko hurrengo galdera hauek, idatziz erantzun ditzan.

– Hezkuntza eta Kultura Departamentuak aztertu al ditu edo ba al du aztertzeko asmorik ikastetxeek aniztasunari arreta eskaintzeko hartutako neurriak edo horien bilakaera?

– Neurri horiek edo horien bilakaera aztertu eta zer hobetze-neurri hartu dira?

– Ikastetxeetan aniztasunari arreta eskaintzeko sortzen diren proposamen eta ekimenei zer laguntza ematen zaie?

– Zein ikastetxetan daude (publikoak nahiz itunpeko pribatuetan) curriculum anitzeko gelak eta curriculum egokituko unitataeak?, zenbat ikasle dago gela bakoitzean?

Iruñean, 1999ko azaroaren 3an

Foru parlamentario: Juan Antonio Andion Gastón

ISN enpresaren hondakin solidoak berriz aztertzea eskatu dela-eta, azterketa horri buruzko galdera

FERNANDO VIEDMA MOLERO FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 8an egindako bilkuran, Fernando Viedma Molero foru parlamentario jaunak ISN enpresaren hondakin solidoak berriz aztertzea eskatu dela-eta, azterketa horri buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko azaroaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeari atxikitako Fernando Viedma Molero foru parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaion Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak:

Aurreko urriaren 20an, aipatu departamentuko kontseilariak, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Ingurugiro Batzordean egin zuen agerraldian esan zuenez, Toxikologi Institutu Nazionalari beste azterlan bat eskatuko zaio; alegia, ISN (Integración de Servicios Nuevos) enpresaren hondakin solidoen beste azterlan bat. Halaber, hitz eman zuen lehenbailehen tramitatuko zuela, kezka piztu baita gizartean. Azkenik, gaur jakin dugu komunikabideen bitartez, aurreko azaroaren 2an eskatu zela analisi hori. Hori dela eta, hona hurrengo galdera hauek, idatziz erantzuteko:

– Zer eskatu da beste analisi horretan?

– Ba al da hitzarmenik ISN eta Cetransaren artean (Santovenia de Pisuergan –Valladoliden– hondakin toxiko arriskugarriak tratatzeko planta) hondakinak eramateko?

– ISNk jarduerari ekiteko baimena behar du; ba al daki Departamentuak zer egoeratan dagoen baimen horren tramitazioa?

Iruñean, 1999ko azaroaren 4an

Foru parlamentarioa: Fernando Viedma Molero

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

1999ko urrian Biltzarrean gertatu alta eta baja

Baja: Javier Sanz Carramiñana jauna

Alta: Jorge Agustín Mori Igoa jauna

Iruñean, 1999ko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Jorge Agustín Mori Igoa jauna «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldean sartzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko urriaren 18an egindako bilkuran, honako hau erabaki zuen: Jorge Agustín Mori Igoa jauna «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko

Taldean sartu dela jakitun dela adieraztea.

Iruñean, 1999ko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

I saila:
PARLAMENTUKO JARDUERA

1999ko urrian egindako bilerak

MAHAIA

14 eta 15ean.

MAHAIA ETA BOZERAMAILEEN BATZARRA

4, 13, 18, 19 eta 25ean.

OSOKO BILKURA

7an:

– Foru Komunitate denez, Nafarroari dagokion senatorea hautatzea

7an:

– Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluko bost kide izendatzea, Nafarroako Parlamentuaren ordezkari izanen direnak.

– Ingurugiro Ministerioak eta Nafarroako Foru Komunitateak Nafarroako ubidea egiteko izenpetu zuten lankidetzeta-hitzarmena eguneratzeko akordioa.

– Arboniés eta Errazti andreek eta "Euskal Herritarrok" Parlamentuko Taldeak aurkezturiko mozioak eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horien bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da eskola-garraioari buruzko plan bat egituratu dezan.

– 190/1999 Foru Dekretua, ekainaren 7koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.

– 257/1999 Foru Dekretua, uztailaren 19koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.

– Europako Gaien Batzordea sortzeko proposamena.

27an:

– Nafarroako Kontseiluko kide, Nafarroako Parlamentuaren ordezkari direnak, izendatzea.

– 1986ko urriaren 10eko Nafarroako Errepideen babesari buruzko 11/1986 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldeak aurkeztua aintzat hartzea, bidezkoa bada.

– Foru Lege proposamena, pentsioen kopuruak lanbideen arteko gutxieneko soldatarekin parekatzeko osagarriak jarri eta beste laguntza-prestazio batzuk hobetzeko, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkeztua aintzat hartzea, bidezkoa bada.

– Oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua arautzeko Foru Lege proposamena, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkeztua aintzat hartzea, bidezkoa bada.

– Nazioko Gobernuari gutxieneko pentsioak eta kotizaziorik gabekoak 1999an igo ditzala eskatzeko mozioa, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkeztua, eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua sasoikako langileei laguntza emateko foru plan bat egin dezan premiatzeko mozioa, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkeztua eztabaidatu eta bozkatzea.

– Foru Diputazioa egungo merkataritza-banaketari buruzko azterlan bat egin dezan premiatzeko mozioa, «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldeak aurkeztua eztabaidatu eta bozkatzea.

– Diputatuen Kongresua gudu zibilean parte hartu zutenen espedienteak guztiz errehabilitatzeko neurriak har ditzan premiatzeko mozioa, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentuko Taldeak aurkeztua eztabaidatu eta bozkatzea.

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEA

1ean:

– Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingu-

rugiro Kontseilariaren agerraldia, haren Departamentuaren ildo politikoen berri eman dezan.

20an:

– Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingu-rugiro kontseilariaren agerraldia, ISN enpresako hondakin kaltegarri eta arriskutsuak direla-eta egi-nen diren jardueren berri eman dezan.

22an:

– Lan bilera. Bertan, Castejónen bi zentral ter-miko jartzeko aukera dagoela-eta, “Ecologistas en Acción” eta “Greenpeace” taldeetako ordezkari batzuek horren berri emanen dute.

26an:

– Lan bilera. Bertan, Castejónen bi zentral ter-miko jartzeko aukera dagoela-eta, Iberdrola enpre-sak, “Hidroeléctrica del Cantábrico” enpresak eta Castejóngo Udalak horren berri emanen dute.

28an:

– Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingu-rugiro kontseilariaren agerraldia, Castejónen bi zentral termiko ezartzeko proiektuaren berri eman dezan.

GIZARTE GAIETAKO BATZORDEA

5ean:

– Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren agerraldia, haren Departamentuaren ildo politikoen berri eman dezan.

14an:

– Lan bilera. Bertan, erditze multipletik jaiotako seme-alabak dituzten gurasoen Nafarroako elkartearen ordezkariak familien arazoaren berri emanen du.

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEA

6an:

– Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren agerraldia, haren Departamentuaren ildo politikoen berri eman dezan.

NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA MENDI BATZORDEA

13an:

– Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren agerraldia, belarki-laboreen ustia-

pen-eskualdetze berriari buruzko informazioa emateko.

INDUSTRI, LAN, MERKATARITZA ETA TURISMO BATZORDEA

15ean:

– Idazkari hautatzea.

– Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseila-riaren agerraldia, Altsasuko industrialdearen berri eman dezan.

OSASUN BATZORDEA

15ean:

– Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, Osasun Kontseilariaren agerraldia, haren Depar-tamentuaren ildo politikoen berri eman dezan.

